



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Lehiaketa iragarkia: 2025-2027 epealdian gaztaina erreak saltzeko postu bat ipintzeko oinarriak.

2025eko ekainaren 20ko 3810/2025 alkatetza dekretu bidez hartutako erabakiarekin bat, iragarki honen bidez jabari publikoan 2025-2027 epealdian gaztaina erreak saltzeko postu bat ipintzeko deialdiaren baldintzak arautzen dituen deialdia onartu da.

Bermeon, 2025eko ekainaren 23an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**2025-2027KO EPEALDIAN GAZTAINA ERREAK SALTZEKO POSTUA
JABARI PUBLIKOAN JARTZEKO DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRIAK****Lehenengoa. — *Baimenaren xedea eta izaera***

Esleitzen den baimenaren xedea da eremu publikoaren zati bat okupatzea, instalazio ez-finkoen bidez, gaztaina erreen salmenta ibiltariaren jarduerarako.

Bigarrena. — *Kokalekua*

Baimena oinarri hauei erantsitako planoan adierazitako kokapenerako izango da, eta udalak bere kokapena aldatu ahalko du ezusteko eta behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, hala gomendatzen badute.

Hirugarrena. — *Baimenaren iraupena*

Baimenak 2 urteko iraupena izango du, eta aldi hauek izango ditu:

- 2025eko urriaren 15etik 2026ko urtarrilaren 31ra.
- 2026ko urriaren 15etik 2027eko urtarrilaren 31ra.

Bukatutakoan, instalazioa eremu publikotik kendu beharko da. Errekerimenduari kasurik egin ezean, Bermeoko Udalak, subsidiarioki, kendu egingo du behartuaren kontura, eta eragindako gastu, kalte eta galeren zenbatekoa eskatuko zaio.

Laugarrena. — *Eskabideak aurkezteko tokia eta epea*

Eskabideak 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, modu hauetako edozeinetan:

- Berhaz herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo). 8:00-15:00: astelehen, asteazken eta ostiralean / 8:00-14:00 eta 16:00-18:00: astearte eta ostegunetan. Udan astelehenetik ostiralera 8:00-14:30 (Pertsona fisikoen kasuan)
- Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>
- Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Gogorarazten da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera harreman elektronikoak izatera behartuta dauden subjektuek, Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dutela eskaria.

Postu eskaera aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea ekarriko du. Oro har, ez da eskaerarik onartuko deialdian ezarritako epe ofiziala baino lehen edo ondoren.

Bosgarrena. — *Aurkeztu beharreko nahitaezko agiriak*

- Interesdunak sinatutako eskabidea eta erantzukizuneko aitortpena, oinarri hauetako eranskineko ereduaren arabera.
- Pertsona juridikoen kasuan: pertsona fisiko batek bere izenean eta ordezkartzan aurkezten badu eskaria eta erantzukizuneko aitortpena, erakundearen ordezkartza egiaztatzen duen agiria.
- Proposatzen den saltokiaren argazkia

Seigarrena. — *Esleitzeko tramitea*

Eskaera eta erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu dituzten interesdunen kopuruak ez badu gainditzen eskuragarri dauden postuen eskaintza, besterik gabe esleituko dira.

Aldiz, eskaera eta erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu duten interesdunen kopuruak eskura dauden postuen eskaintza gainditzen badute, esleipenak zozketa bidez emango dira, eta, betiere, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuta egongo dira, jabari publikoko ondasunen erabilera bereziari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera.



Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, Bermeoko Udalaren hitzaldi aretoan. Zozketa-ren eguna eta ordua iragarki taulan eta udalaren web orrian jarriko dira.

Zozketatik baimenaren titularraren izena aterako da, hasiera batean postua hartuko duena, eta erreserben zerrenda ordenatua egingen da erantzukizuneko aitortpena aurkeztu duten gainerako eskatzaileekin. Zerrenda iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko da.

Zazpigarrena. — Esleipendunak aurkeztu beharreko agiriak

Esleipen-hartzaileak 10 egun balioduneko epea izanen du, zerrenda iragarki taulan eta web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita, honako dokumentazio hau aurkezteko:

- Salmentan eskainitako produktuaren kalez kaleko salmentari dagokion epigrafean alta emanda egotearen eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainduta edukitzaren akreditazioa, edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan alta emanda egotearena.
- Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Bermeoko Udalarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Baimenaren titularrak bizitzeko eta lan egiteko baimena duela egiaztatzea, hirugarren herrialdeetako nazionalen kasuan.
- Ordainagiria eta erantzukizun zibileko aseguru poliza, egin beharreko salmenta jarduerak sor ditzakeen kalte eta galerak estaltzeko.
- Elikagaien higieneari buruzko prestakuntza-ziurtagiria.
- Funtzionamendurako osasun-baimena edo osasun-erregistroko zenbakia.
- Ekoizpen propioko produktuak saldu nahi izanez gero, dagokion lurraldeko Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroan nekazaritza-ustiatzearen inskripzio-zenbakia jarriko da, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legearen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Lege hori irailaren 11ko 203/2011 Dekretuaren bidez garatu da.

Bermeoko Udalak ofizioz egiaztatu ahalko du hurrengo dokumentazioa:

- JEZeko alden eta baje ziurtagiria, kalez kaleko salmentari dagokion epigrafean.
- Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Bermeoko Udalarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Pertsona fisikoaren kasuan: eskatzailearen identitatea, NANean agertzen diren datuen bidez; eta hirugarren herrialdeetako pertsona nazionalen kasuan, atzerriartasunaren arloan indarrean dagoen legeriak eskatzen duen bizileku- eta lan-baimena.

Gainera, epe horretan bertan, udal jabari publikoaren erabileraren tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean aurreikusitako tasa ordaindu beharko du, honako ordainbide hauetako edozeinen bidez:

- Edozein bankuko bulegoetan, Bermeoko Udalak luzatutako ordainketa agiriarekin.
 - Txartel bidez Berhaz herriarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo). 8:00-15:00: astelehen, asteazken eta ostiralean / 8:00-14:00 eta 16:00-18:00: astearte eta ostegunetan. Udan astelehenetik ostiralera 8:00-14:30.
 - Internet bidez, helbide honetan:
http://www.bermeo.eus/ordainketak_online.html

Atal honetan ezarritakoa betetzen ez bada, postua esleitzeko eskubidea galduko da. Kasu horretan, jarduera berak egingen dira erreserba zerrendan agertzen diren pertsonekin, bertan ezarritako ordenaren arabera eta dagokion tasa ordainduta. Lanpostu horretan beste lizitatzailerik ez badago, postu hutsa deklaratu ahalko da, beste zozketa bate-rako deialdia egin edo zuzenean esleitu, administrazioak erabakitzen duenaren arabera.



Bermeoko Udalak Txartel bat emango dio eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duen pertsona baimenduari. Txartel horrek instalazioa muntatzeko baimena emango dio. Bertan, titularrak emandako helbide bat agertuko da, jarduerak dirauen bitartean erreklamazioak jaso ahal izateko, eta ikuskatze-lanak egiten dituzten udal-agintarien eskura egon beharko du.

Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen oinarrietan ezarritako baldintzak, baimena baliorik gabe utz daiteke, baldin eta aldez aurretik interesdunari entzun bazaio.

Zortzigarrena. — Esleipendunaren eskubideak

Baimendutako pertsonaren eskubideak dira, aplikagarri diren legezko eta erregela-menduzko xedapenetan ezarritakoa deusetan ukatu gabe, indarrean dagoen Kalez kaleko Salmenta arautzen duen Ordenantzaren 25. artikuluan izaera horrekin jasotakoak, bai eta oinarri hauetan xedatutakoak.

Bederatzigarrena. — Esleipendunaren betebeharrak

Baimena lortzen duen eskatzaileak, bere jardueraren ondorioz aplikatzekoak diren legezko betebeharrak betetzeaz gain, oinarri hauetan bildutako xedapenen arabera egin beharko du lan, bereziki ondoko eginbehar hauek:

- a) Lanpostuetako langileak. Baldintzak:
 - Salmenta-lizentzia eman aurretik, eskatzaileak Bermeoko Udalarekin ordainketak egunean izan beharko ditu. Baldintza hori ofizioz egiaztatuko da.
 - Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea eta baimenak irauten duen bitartean kuotak ordainduta izatea.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda egotea eta tarifa ordainduta izatea edo, salbuetsirik egonez gero, zergapekoen erroldan alta emanda egotea.
 - Hirugarren herrialdeetako emaileek egoitza eta lan baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
 - Erantzukizun zibileko aseguruia, indarrean dagoen merkataritza-jardueraren arriskuak eta ordainketak eguneratuak estaltzen dituen.
 - Araudi espezifikotik ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak betetzea.
 - Esleipen-hartzaileak erraz ikusteko moduan izan beharko du jendaurrean, bai eta ikuskapen-lanak egiten dituzten agintarientzat ere:
 - Kalez kaleko salmenta egiteko udal-baimena.
 - Jarduera egiten den bitartean erreklamazioak jasotzeko helbidea. Helbide hori salmentaren ordainagirian edo egiaztagirian agertuko da beti.
- b) Betebehar orokorrak
 - Enpresaburu gisa aplikatu beharreko araudia betetzea, bereziki elikagaien salmenta-ustiapenaren ondorioz aplikatzekoa dena.
 - Jarduerak eragindako gastu guztiak (argia, ura, etab.) esleipendunak ordainduko ditu.
 - Esleipendunak jarri nahi dituen kartel edo publizitate guztiek Bermeoko Udalararen oniritzia izan beharko dute. Oro har, jendeari ematen zaion dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko da.
 - Prezioak jendaurrean jarri beharko dira, eta Udalararen baimenak ikusteko moduko tokian egon beharko du.
 - Esleitutako lekuetan saltzea.
 - Bere kontura egitea instalazioak kontserbatzeko beharrezkoak diren konponketa guztiak, baita erabiltzaileek eragindako narriadurez ere, eta beharrezkotzat jotzen dituen berritzeak edo hobekuntzak.



- Enpresa esleipendunak eguneraturik izan beharko ditu negozioaren ustiapenari dagozkion zerga- eta lan-betebeharrak, eta zerbitzua egiteko kontratatutako langileak bere ardurapean egongo dira.
 - Enpresa esleipendunak solaskide bat izendatuko du, telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoa bat izango dituen, akats eta ustekabeei buruzko informazioa emateko edo horiek konpontzeko.
 - Esleipendunak baimenean ezarritako helbururako bakarrik erabiliko ditu bere eskura jartzen zaizkion instalazio eta elementuak.
 - Ezin izango da megafoniako gailurik erabili produktuak sustatzeko edo musika emititzeko salmentak dirauen bitartean.
 - Kalez kaleko salmentari buruzko udal ordenantzaren 26. artikuluan aipatzen diren gainerako betebeharrak.
- c) Eremu publikoaren gaineko betebeharrak:
- Esleipendunak jarriko ditu saltokiak, zehazten diren lekuetan.
 - Lanpostuen ezaugarrietako bat inguruneari, estetikari eta funtzionaltasunari egokitzea izango da.
 - Esleipenduna behartua dago erabilitako jabari publikoaren zatia, bere instalazioez gain, kontserbazio- eta garbitasun-egoera onean mantentzera, baita haren inguruan kaxen, bilgarrien, paperen eta abarren arrastorik ez uztera ere. Esleipendunaren betebeharra izango da birziklatze-edukitzaileak sortzen duen zabor guztia, egunaren amaieran, okupatutako lekua behar bezala eramatea.
 - Gaztainak saltzeko instalazioen kokapenak oinezkoen joan-etorria ahalbidetu beharko du, irisgarritasunari buruzko legean eta hura garatzen duten arauetan oinezkoentzako ibilbideetarako ezarritako arauak jarraituz. Era berean, gurpil-aulkiak dituen pertsona baten aurreko hurbilketa baimendu beharko da.
 - Baimenaren xede den jarduerak eremu publikoan eragindako kalte eta galera guztien erantzule izango da lizentziaren titularra.
 - Zoladuran ez da ainguraketarik erabiliko, eta behar bezala babestu beharko da.
- d) Betebehar higieniko-sanitarioak:
- Postuak edozein kutsadura-gunetatik urrun jarriko dira.
 - Langileen jantziak egokiak eta erabilera eskusiborakoak izanen dira. Norberaren garbitasunean eta jantziaren garbitasuna mantenduko dute, baita jardueraren berezko tresnetan ere.
 - Jarduerarik gabeko aldietan, establezimenduak kanpoaldetik isolatuta gertuko dira, sektoreak (intsektuak, karraskariak edo bestelako animaliak) sar ez daitezten.
 - Saltzeko erabilitako gaztainak baimendutako establezimenduetan erosiko dira.
 - Produktuaren trazabilitatea azken kontsumitzaileari saldu arte mantentzeko behar diren dokumentuak izango ditu.
 - Banaketan erabiltzen diren ontziak elikagaiekin erabiliko dira.
 - Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren III. Eranskinean ezarritako gainerako baldintza higieniko-sanitarioak (janariak etiketatzea, lanpostua garbitzea, elikagaiak hoztea, janariak erabiltzeko txartela, garbitzeko material egokia, ekipoa eta laneko tresnak desinfektatzea, karteletako prezioak, postuaren arduradunaren kartela, ordena eta garbiketa, jarduerak berak sortutako hondakin likido eta solidoak ezabatzeko instalazio egokiak).
- e) Kontsumitzailearen babesa:
- Instalazio guztietan ikusgai jarriko dira publikoarentzako salmenta-prezioak eta erreklamazio-orriak, hala eskatzen duten bezeroen eskura.

**Hamargarrena. — Kontrola eta egiaztapena**

Bermeoko Udalak behar diren kontrol eta ikuskapen lanak eginen ditu, lizentziaren xede diren lanpostuen eta haietan egiten den jardueraren erabilera zuzena bermatzeko.

Hamaikagarrena. — Zehatzeko moduko hutsegiteak eta zehatzeko araubidea

Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren VIII. kapituluan ezarritakoa izanen da zehatu daitezkeen arau-hausteen sailkapena.

Udal-agintariak, zaintza- eta kontrol-funtzioak betez, bermatu egingo dute ebazpen honetako xedapenak eta kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzan eta jarduerari eta salmenta-produktuei aplikatu beharreko gainerako lege-arauetan ezarritakoak behar bezala beteko direla.

Araudi hori betetzen ez bada, ofizioz, organo eskudunak edo pertsona interesdunak eskaturik, nahitaezko zehapen espedienteak tramitatuko da.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena espedienteak hasteko eta, hala badagokio, egoki irizitako ebazpena emateko.

Zehapen-espedienteak ebazpen baten bidez hasiko da, eta ustez arau-hausleak diren pertsonen jakinaraziko zaie. Bertan, arrazoiak eta inguruabarrak, ustez urratuak dauden arauak eta horiek tramitzeko izendatutako instrukzio-egilea zehaztuko dira, eta 15 egun balioduneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko legeria orokorrean aurreikusitakoa aplikatzearen kalterik gabe, arau-haustek merkataritzako jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.

Hamabigarrena. — Baimena irautzeko arrazoiak

Saltzeko baimenak irautzeko dira:

- Baimenean emandako epea bukatzea.
- Titularraren borondatezko uko egitea edo heriotza.
- Baimena emateko eskatutako baldintzetakoren bat galtzea.
- Tasak edo kanonak ez ordaintzea.
- Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako moduan ezeztatzea.
- Baimena galtzea dakarren zehapena.

Hamahirugarrena. — Lizentziak hartzeko ezintasun-egoerak

Obrak edo bestelako arrazoiak direla eta, lizentziaren titularrak ezin badu instalazioa ohiko erabilerako eremuan erabili, udalak une horretako egoera aztertuko du. Deskribatutako egoerak ez du inola ere kalte-ordainerako eskubiderik sortuko lizentziaren titularraren alde.

Hamalagarrena. — Konfidentzialtasun-klausula eta datu pertsonalak

Bermeoko Udaleko Idazkaritza Sailak, 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan ezarritakoa betez, eskatzaileei jakinarazten die beren datu pertsonalak udal-kudeaketaren berezko zereginak egiteko fitxategietan sartuko direla.

Deialdia ebatzi ondoren, esleipen emaitza iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira.



ERANSKINA

**GAZTAINA ERREAK SALTZEKO POSTUA IPINTZEKO ESKABIDE
EREDUA ETA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA**

Titularraren datuak			
Elkartearen izena		IFZ	
1. abizena		2. abizena	
Izena		NAN/AIZ	
Kalea		Zenbakia	
Solairua	Atea	Posta-kodea	Herria
Lurraldea			
1. telefonoa	2. telefonoa	Posta elektronikoa	
Helbidea (1)		Eposta (1)	
Erreklamazioak honako helbidean aurkeztu behar dira			

Titularraren konturako baimena erabiliko duen langile edo bazkidearen datuak (hala badagokio)			
1. abizena		2. abizena	
Izena		NAN/AIZ	
Kalea		Zenbakia	
Solairua	Atea	Posta-kodea	Herria
Lurraldea			

Eskatzen dut
Gaztaina erreka saltzeko postua
Okupatu beharreko metro kopurua (m ²)

Erantzukizunez adierazten dut bermeoko udalararen aurrean
Honako deialdia arautzen duten oinarriak ezagutu eta onartzen ditudala
Baimenak indarra duen bitartean, kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzan eta deialdi ofizial honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea, eta zehazki: — Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea — Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. — Merkaturatzen ditudan produktuei buruzko araudietan galdatzen diren betekizunak beteko ditudala

**Erantzukizunez adierazten dut bermeoko udalararen aurrean**

Deialdian zehaztutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen dituzten agiriak aldean izango ditudala baimena indarrean den bitartean

Zerga betekizunak eta betebeharrak laboralak egunean ditudala

Erantzukizun zibileko aseguru bat dudala, jardueraren ondorioz izan ditzakedan kalte eta galerak estaltzen dituen

Saltokiak gutxienez 21.-113B eraginkortasuna duen su-itxalgailua duela

Lan eta egoitza baimena dudala, indarra dagoen legeriaren arabera (atzeritarren kasuan bakarrik)

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazio hau irakurri dudala: zure datu pertsonalak Bermeoko Udalak erabiliko dituela jakinarazten zaizu. «Ondarea eta Inbentarioa» tratamenduaren helburua Bermeoko Udaleko ondarearekin lotutako espedienteak kudeatzea da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea duzu. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara:
<http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

Jakinarazi didatela entitate honek eskabidean eta erantsitako dokumentazioan emandako datuak tratatu eta gordeko dituela, administrazio jarduerak egiteko.

Eta hala ager dadin, izenpetu egiten dut.

Sinadura eta data



DATU PERTSONALEN TRATAMENDIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Bermeoko Udala. Idazkaritza Saila
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	dbo@bermeo.eus
Tratamenduaren xedea	Bermeoko salmenta ibiltariko postuak esleitzeko eskabideen kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	DBAOkp 6.1.b) artikulua Kalez kaleko salmenta Bermeon arautzen duen ordenantza Gaztaina erreak saltzeko postua jabari publikoan jartzeko deialdi publikoaren oinarriak
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira jaso diren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko, legez ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatu zaie datuei
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu